# 2023KO APIRILAREN 19KO OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2023-04-19.
Hasiera ordua: 19:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:
EH BILDU
Jose Esteban Aguirre Zubieta
Estibaliz Pinacho Olaciregui
Maialen Chantre Irazoki
Ines Rosario Matxiarena Aldalur
HERRIRAKO
German Castillo Lazcanotegui
Jose Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:
Patxi Castillo Graciarena

ALDEZ AURRETIK JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:
Julen Errandonea Martin

ALKATEA (Bilkurako buru):
Aitor Elexpuru Egaña

KONTU-HARTZAILEA: Maria Dolores Oyarzabal Zubieta

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren gai-zerrendan sartu zirenak):

## 1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2023-03-22). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartu da akta.

## 2. 2022KO KONTUEN ONESPENA.

Kontu-hartzaileak kontuen espedientea azaldu du eta, jarraian, honako erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- 2022. ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari dagokion kontuen espedientea.

- Udalbatzako Kontu Batzorde Bereziak onartzearen alde emandako txostena.

- Espedientea jendaurrean egon dela 15 eguneko epean, erreklamaziorik aurkeztu ez delarik.

Kontuan izanda Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluak arautukoa,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. 2022ko aurrekontuaren likidazioari dagozkion kontuak onestea, Udalarenak eta Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolaren Patronatua erakunde autonomoarenak, hain zuzen ere.

2. Aipatutako kontuen kopia bidaltzea Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusira, 15 eguneko epean.

Kontu-hartzailea bileratik atera da.

**3. 2023/9 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (AUTOKARABANAK). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko martxoaren 31n egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-1690-60901. Autokarabanak. 25.000,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 25.000,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 25.000,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/9 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**4. 2023/10 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: KREDITU-GEHIGARRIA (BIDE ETA PISTEN MANTENTZEA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Ez dagoela kreditu nahikorik pista eta bideak mantentzeko gastuen partidan zenbait lan egin ahal izateko.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko martxoaren 31n egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, kreditu-gehigarria, inbertsioak egin ahal izateko. Aipatzen du ondoko hau dela gehigarria behar duen gastu-partida:

1-4121-21000. Bide eta pisten mantentzea. 40.000,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 40.000,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 40.000,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/10 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-gehigarria).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko

aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**5. 2023/11 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (OBRAK FUTBOL ZELAIAN). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako kredituri.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko martxoaren 31n egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-3423-62200. Obrak futbol zelaian. 6.000,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 6.000,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 6.000,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/11 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**6. 2023/12 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (ZALAIN POLIGONOAREN BIDEGURUTZEA HORMIGOITZEA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko martxoaren 31n egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-4530-60900. Zalain poligonoaren bidegurutzea hormigoitzea. 20.658,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 20.658,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 20.658,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/12 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**7. 2023/13 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (INSTITUTUAREN SARRERA ETA MUKIXU PARKEAREN INGURUNEA HORMIGOITZEA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako kredituririk.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko martxoaren 31n egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-1532-61901. Institutuaren sarrera eta Mukixu parkearen ingurunea hormigoitzea. 22.647,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 22.647,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 22.647,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/13 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**8. 2023/14 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (SANEAMENDUKO OBRAK). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako kredituririk.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko martxoaren 31n egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-1601-60900. Saneamenduko obrak. 21.000,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 21.000,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 21.000,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/14 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**9. 2023/15 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (IBARDINGO BILTEGIAREN ETXOLA BERRIA ERAIKITZEA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko martxoaren 31n egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida

honetarako:

1-1612-62200. Ibardingo biltegiaren etxola berria eraikitzea. 16.505,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 16.505,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 16.505,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/15 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**10. 2023/16 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUA (KONTENEDOREAREN EROSKETA). HASIERAKO ONESPENA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako kredituri k.

- Martxoaren 7ko 55/2023 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2022ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2023ko martxoaren 31n egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-33800-62500. Kontenedorearen erosketa. 2.700,00 €.
Zenbatekoa, guztira: 2.700,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 2.700,00 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

**aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2023/16 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespenaren erabakia behin betiko onetsitzat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

**11. BALORAZIO TXOSTENA BERRIKUSTEKO PROZEDURA HASTEA.**

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik Nafarroako Zerga Ogasuneko Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuko zuzendariak, urriaren 19ko 71/2017 Ebazpenaren bidez, onetsi zuela Berako balorazio txostena (208. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2017ko urriaren 27an).

Kontuan hartuta Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legearen 35. artikuluak ezartzen duela balorazio txostenak berrikusi behar direla onartzen direnetik edo azken berrikuspenetik gehienez ere bost urteko epea pasatzen denean.

Azaldutakoa oinarri hartuta, eta 12/2006 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen 100/2008 Foru Dekretuaren 37.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, **aho batez** ERABAKI DA:

1. Balorazio txostenaren proiektua egitea.

2. Alkateari agintzea zerbitzua kontratatzeko egin beharreko izapideak egiteko.

3. Erabaki hau helaraztea Nafarroako Gobernuko Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tributuen Zerbitzuari.

4. Erabaki hau helaraztea Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiari, 7/2022 Foru Legearen 20. artikuluaren ondorioetarako. Foru Lege horrek ezartzen du nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-

erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa.

**12. 2023KO PLANTILLA ORGANIKOAREN ALDAKETA (C MAILAKO MANTENTZE LANETAKO ETA ZERBITZU ANITZETAKO OFIZIAL LANPOSTU BERRI BAT SORTZEA). HASIERAKO ONESPENA.**

Arrazoiketa:

- Mantentze lanetako eta zerbitzu anitzetako ofiziala izeneko lanpostua (C maila) betetzen duen pertsona, ur-zerbitzuaren arduraduna, eszedentzia egoeran dago.

- 2023ko urtarrilaren 1etik, D mailako zerbitzu anitzeko funtzionarioa ari da bere eginkizunak betetzen.

- Igarotako hilabeteetako esperientziaren ondorioz, Udalaren antolaketa aldatzea komeni da, mantentze lanetako eta zerbitzu anitzetako ofizial plaza berri bat gehituz (C maila) uren zerbitzura, D mailako zerbitzu anitzetako langile bat goragoko mailan kokatzetik eratorria.

Kontuan hartuta:

- Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren (251/1993 LFD) 15.6 artikuluak honako hau ezartzen duela: 6. Eraginkortasun- eta ekonomia-arrazoiak direla-eta lanpostuen antolaketan eta funtzioetan aldaketak egitea komeni denean, eta aldaketa horien ondorioz, nahitaez, lanpostu horiek goragoko mailan kokatu behar direnean, Nafarroako administrazio publikoek, salbuespen gisa, hautaketa-probetarako deialdia egin ahal izanen dute beren funtzionarioentzat bakarrik, betiere deitutako lanpostu hutsek ez badakarte inolako gehikuntzarik plantillan dauden lanpostuen kopuruan.

- 2022ko azaroaren 23ko osoko bilkuran, hasiera batean onartu zela Berako Udaleko eta Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolaren Patronatua erakunde autonomoko langileen plantilla organikoa 2023. urterako. Behin betiko onarpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2023ko urtarrilaren 23an (15. zenbakia).

- Idazkariak eta kontu-hartzaileak txostenak egin dituztela.

- Alkateak idatzi duela aldaketa proposamena.

Azaldutakoan oinarriturik, baita aipatutako arrazoiketan ere, eta kontuan izanik aplikagarria den araubideak ezartzen duena, **aho batez** ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea  jarraian zehazten den Udaleko langileen 2023ko plantilla organikoaren aldaketari:

Plantilla organikoaren aldaketa:

* Lanpostua: Mantentze lanetako ofiziala eta zerbitzu anitzetakoa.
Lanpostuaren zenbakia: berria sortu.
Kopurua: 1.

Araubide juridikoa: funtzionarioa.
Maila: C.
Mailako osagarria, %12.
Lanpostuko osagarria, %30.
Aginte osagarria, %10.
Arrisku bereziko osagarria, %7.
Prest egoteko osagarria (luzapena), %10.
Sarbidea: barne-sustapen mugatua (251/1993 LFDren 15.6 artikulua), oposizio bidez.
Laneko egoera: hutsik.
Euskara maila: C1 (ahoz) eta B2 (idatziz).

Zerbitzu anitzeko enplegatuak C mailako mantentze lanetako eta zerbitzu anitzetako ofizialaren lanpostura igotzea lortzen badu, amortizatu eginen da plantillako D mailako zerbitzu anitzeko langilearen plaza, funtzionario-izaera duena.

2. Espedientea jendaurrean jartzea 15 eguneko aldian, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, plantillaren aldaketa behin betiko onartutzat joko dela.

4. Akordio hau jakinaraztea funtzionario interesdunari.

**13. MOZIOA: AMIANTOA.**

Alkateak aurkeztu ondoren, **aho batez** ONETSI DA mozio hau:

**Zioen azalpena**

1.- Amiantoa material kantzerigenoa eta oso hilgarria da. Bere aldakortasuna eta prezio baxua direla eta, modu masiboan erabili zen joan den mendeko 70/90eko hamarkaden artean. Bere bizitza erabilgarria 30/50 urte artekoa da, eta latentzia-aldia 25/40 urte artekoa. Garai batean izandako esposizioek eta, ziurrenik, bere garaian instalatutako amiantoaren degradazioak eragindako ingurumen-kutsaduren ondorioz kutsatutako pertsonen kasuak ezagutzen hasi gara. Ondorio kaltegarriak jasaten dituztenei, kasurik onenean, neurri aringarriak baino ezin zaizkie aplikatu. Kalkuluen arabera, Espainiar estatuan amiantoaren ondorioz izandako heriotzak 50.000 eta 100.000 artekoak izango dira 2050ean.

2.- Nafarroa erkidego oso industrializatua izanik, Estatuko gunerik kaltetuenetako bat da, eta Beran gure kuota-zatia betetzen dugu.

3.- Europar Batasunaren aginduz, Espainiar Estatuan 2001. urtean amiantoa erabiltzea debekatu zen, baina gure eguneroko bizitzan presente jarraitzen du. Nafarroan 6 milioi metro karratu daude industria- eta nekazaritza-nabeen estalkietan, ikastetxeetan, eraikin publikoetan eta abarretan, eta 526 kilometro kanalizazioetan, ureztatze-uretan, zorrotenetan, ahoko uretan eta abarretan. Kosmetikako multinazional ezagun batek talko-hautsak merkatutik erretiratu behar izan ditu duela gutxi, amiantoa zutelako.

4.- 2013ko maiatzaren 14ko Europako Parlamentuaren 2012/2065 Ebazpenak,

Batasuneko herrialdeetan 2032. urtearen amaierarako amiantoarekin bukatzeko betebeharra ezartzen du.

5.- 2015-2019. legegintzaldian, Nafarroan amiantoarekin bukatzeko Plan Zuzentzailea egin zen, eta Nafarroako Parlamentuak eta Gobernuak aho batez onartu zuten. Europar Batasunak ezarritako helburua lortzeko, gutxienez 240 miloi euroko beharko direla kalkulatu zen (20 miloi euro urtean 2023. urtera arte). Plana aitzindaria izan zen Estatu mailan, baina legegintzaldi honetan ez da aurrerapauso nabarmenik egin eta beste autonomia erkidego batzuk Nafarroari aurreratu diote.

6.- ADAVANek, Nafarroan amiantoaren biktimei laguntzeko elkarteak, aipatutako Plan Zuzentzailea martxan jartzeko borroka egin du. 2021ean, amiantoa kentzeko plana abian jartzea planteatu zitzaion Nafarroako Parlamentuari, eta 1.200.000 euroko gastua proposatu zen. Aurrekontu-baliabiderik ez zegoela argudiatuz, 65.000 euro baino ez ziren bideratu amiantoa duten materialak identifikatzeko eta kudeatzeko gaikuntza-ikastaroetarako. Berriz ere, 2022ko abenduan, ADAVANek elkarrizketak izan zituen José María Aierdi lurralde-antolamenduko sailburuarekin, eta hark jakinarazi zuen Estatuarekiko hitzarmenaren ondorioz 137 milioi euro itzuli behar zaizkiola gure erkidegoari. Sailburuak amiantoa kentzeko plana abian jarri eta garatzeko beharrezkoak ziren baliabide ekonomikoak bideratzeko konpromisoa hartu zuen. ADAVANen kalkuluen arabera, 2023. urterako 24 miloi euroko funtsak funtsak beharrezkoak ziren.

7.- Trantsizio Ekologikorako Ministerioak apirilaren 8ko 7/2022 Legea onartu zuen, eta, horren arabera, udalek amiantoa duten instalazioen eta tokien errolda bat izan behar dute BOEn argitaratu eta urtebeteko epean, bai eta amiantoa ezabatzeko egutegi bat ere. Erabilera publikoko eraikinen kasuan, epea 2028rako da.

8.- Amiantoarekin bukatzea, bidezko aldarrikapen soziala izateaz gain, legezko betebeharra da, eta egungo Nafarroako Gobernuaren eta udal guztien konpromiso politikoa.

**Erabakiak. Udalbatzak onartzen du:**

1. Nafarroako Gobernuarekin batera, Berako udal dermioan amiantoa duten lekuen errolda bat egitea 2023a amaitu baino lehen.

2. Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean, erabilera publikoko eraikinetan mineralarekin bukatzeko plan bat osatzea, 2028. urtea hasi baino lehen gauzatzeko egutegiarekin.

3. Nafarroako Gobernuari eskatzea amiantoa kentzeko plana martxan jar dezan, eta 2023. urtean garatu ahal izateko behar bezain beste aurrekontu gaitzea helburu horretarako (ADAVANen kalkuluen arabera, 24 miloi euro).

4. Eskualdeko eta eskualdeko osasun-zerbitzu publikoen inplikazioa eskatzea, herritarrak amiantoa modu seguruan desagerrarazteko beharraren inguruan informatzeko eta sentsibilizatzeko, eta Osasunbidea – Nafarroako Osasun Zerbitzuari amiantoaren ondoriozko gaixotasunak goiz detektatzeko.

5. Lan-osasuneko eta laneko administrazio publiko eskudunekin lankidetzan aritzea, obra- edota eraispen-lizentziak ematean laneko arriskuen planak betetzen direla ziurtatzeko.

6. Erabaki honen berri ematea Nafarroako Gobernuko presidente Chivite andreari, Lurralde Antolamenduko kontseilari Aierdi jaunari, Osasun kontseilari Indurain andreari, Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari.

**14. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B9/2023 zenbakidunetik B12/2023 zenbakidunera arte.

- Ebazpenak: 73/2023 zenbakiko ebazpenetik (2023-03-21) 93/2023 zenbakiko ebazpenera arte (2023-04-13).

**15. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:45ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.